

# SARRERA

Osasuntsu jatea, eta bizitza *fit* bat edukitzea modan dago azken aldian, zein da arazoa? Produktu ekologiko eta osasuntsu gehienak urrutitik inportatuak direla, CO<sub>2</sub> eta kutsatzaile diren beste gasak emitituz: adibidez, datilak eta beste fruitu lehor gehienak Ekialde Hurbiletik eta Hego Amerikatik dira inportatuak; haragi industriako produkuen gehiengoa Argentinatik dira inportatuak; sukaldeko espezie gehienak Indiatik dira inportatuak... Baina, produktu hauek guztiak gure ondoko baserrian ekoitziak dira, zergatik erosi multinazional kanpotar bati, gure ondoko baserritarrak kalitate hobeko eta Km0-ko produktuak ekoizten baditu? Egia da prezioak apurtxo bat merkeagoak direla produktu inportatuetan, baina prezio gehigarritxo horiek ez dituzte CO<sub>2</sub> emisioak justifikatzen.

Bestalde, gaur egun sare sozialen bidez sukaldari asko egiten ari dira famatuak eta gastronomiaren grina ari da pizten hainbat etxetan...orduan, aukera ederra ikusi dugu merkatu honetaz aprobetxatzeko. Gainera, CANVAS proiektua urratsez urrats jarraitu dugu proiektu hau aurrera ateratzeko, zati bat bera ere landu gabe utziz, denak izango baitira garrantzitsuak gure arrakastarako. Jarraian daude zati hauek guztiak, balio proposamenetik hasita kostuetaraino 9 puntu landuaz.